

ZIBERSTEILAS HAURRESKOLAK 18

STEE-EILAS-en informazio elektronikoa

martxoak 4

Dakizuenez, pasa den otsailaren 27an mahai parekidea izan genuen eta jorratu genituen gaiak hurrengoak izan ziren:

LEP

- Orain arte, aurretik emandako egutegiarekin aurrera jarraitzeko asmoa dute, beraz, martxoaren 13an behin-behineko zerrenda aterako dute.
- Oraindik ez dakigu zeintzuk izango diren eskainiko diren 500 plaza.
- Zer gertatuko da plaza finkoa lortu ez dutenekin? STEE-EILASetik proposatu dugu esleipen handi bat egitea, non plaza lortu duten 500 pertsona horiek kenduta, beste langileek lekua aukeratuko lukete gaur egun daukagun ordezkapen zerrenda jarraituz.

Partzuergoak dio hau ezin duela legalki egin (ezin diote bakantedun bati plaza kendu bere plaza LEParen bidez ez bada betetzen, gero beste bati plaza emateko kontratu berberarekin). Adibidez, zure haurreskolan 6 plaza baldin badaude eta 4 LEPan eskaintzen badira, geratzen diren bakantedun 2 plaza horiek haurreskola horretan antzinasun gehiago duten langileek mantenduko lituzkete.

Hau horrela izanda, guk behintzat, haurreskolako antzinasuna baliorik ez izatea eskatzen dugu eta bai ordea, ordezkapen zerrendaren postua.

Hala ere, gai hau ondo aztertu ahal izateko, martxoaren 13a baino lehenago, egingo den parekidean tratatuko da.

- RPT berria. Datorren ikasturtean egingo den LEPerako RPT berria hasi dira egiten, eta horretan STEE-EILASetik eskatu dugu, 125 plazetatik hasiz, ahalik eta plaza gehien eskaintzea.
- Pertsonal kudeaketako RPTa. Hasi dira lan hauen inguruan monografikoak egiten, horretarako IVAPeke aholkularitzarekin harremanetan daude, baina oraindik, lan asko geratzen da.

BAREMAZIOA

STEE-EILASetik, behin eta berriz, eskatu dugu bakoitzak sartuta ez dituen merituak edozein momentuan sartu ahal izatea. Horrela Otik hasita ondo dagoen zerrenda bat lortuko lirateke. Ematen du, aurten, Partzuergoa prest dagoela horretaz hitz egiteko eta hurrengo parekidean jarraituko dugu gaia jorratzen.

ARABA: Fuente de los Patos 2-3.C	01001 Gasteiz	☎ 945 14 11 04	☎ 945 14 43 02	araba@stee-eilas.org
BIZKAIA: Nikolas Alkorta 3 (Zabalburu)	48003 Bilbo	☎ 944 10 02 98	☎ 944 10 13 60	bizkaia@stee-eilas.org
GIPUZKOA: Baso-txiki 30-34 (atzealdea)	20015 Donostia	☎ 943 46 60 00	☎ 943 45 36 27	gipuzkoa@stee-eilas.org
NAFARROA: Descalzos 72 (lonja)	31001 Iruñea	☎ 948 21 23 55	☎ 948 27 00 48	nafarroa@stee-eilas.org

ZIBERSTEILAS HAURRESKOLAK 18

STEE-EILAS-en informazio elektronikoa

martxoak 4

ORDAINSARIAK

➤ **Ordainsarien eguneraketa.**

STEE-EILASen helburua irakasleen soldatari hurbilketa bat egitea da. Iaz, lan hitzarmena sinatu zenean, %4,22 igoera adostu zen 2008rako baina, gero, Eusko Jaurlaritzak bere pertsonalari egiten zion igoeraren arabera, berrikusiko genuelakoan geratu ginen. Irakasleriak 2008an %4,7ko igoera izan zuen eta 2009an %3,5eko igoera aplikatu zaió. Hau dela eta, 2008rako %0,5 igoera eskatu dugu eta aurtengorako Irakasleen soldatarenaganako hurbilketarekin jarraituz, %4eko igoera.

➤ **Koordinatzaileen ordearen ordainsaria.**

Gai honekin luze daramagun arren, ez dugu lortzen ados jartzea. Partzuergoak hilabete naturaletik, hiru astera jaitsi da, hala ere, gure ustez, ezin da hau onartu eta lehenengo egunetik ordaindu behar dela esaten jarraitzen dugu.

KUDEAKETA GAIAK

➤ **Taldekatzea.**

STEE-EILASetik denbora asko daramagu taldekatzeak salatzen, legearen kontra doazelako, lan zama handitzen delako eta horrez gain, haurreskola gehienetan espazio fisikoa egokiena ez dela pentsatzen dugulako. Partzuergoak, berriz, behin eta berriró, defendatzen du hori ondo eginda dagoela. Azterketa egingo dugu berriz, eta egun hauetan harremanetan jarriko gara taldekatze eginda daukaten haurreskolekin informazio zuzena jasotzeko.

➤ **Ordezkapenak.**

Partzuergoak, jakinarazten digu momentu honetan ordezkapen zerrenda agortuta dagoela eta guk jarraitzen dugu esaten lan baldintzak hobetzen ez diren bitartean zaila izango dela ordezkapen zerrenda luzea izatea. Gainera arazoa larriagoa izango da haurreskola berriak irekitzen dituzten bitartean.

➤ **Txanda egunak.**

STEE-EILASek, aspaldi eskatu zuen txanda egunetan bajaran egonez gero, egun hauek berreskuratu ahal izatea. Partzuergoak oraingoan baietz dio baina kurtso berean berreskuratu beharko dira. Atzera eraginezko efektuarekin aplikatzea eskatu diegu eta begiratuko dutela esan digute.

➤ **Praktikak.**

Langile batzuei norberaren eginkizunetarako baimena ukatu zaie, praktikak egiteko. Orain, praktika hauek haur hezkuntzarekin zer ikusia baldin badute eta leku ofizialetan egiten baldin badira, baimenduak izango dira.

ZIBERSTEILAS HAURRESKOLAK 18

STEE-EILAS-en informazio elektronikoa

martxoak 4

FORMAKUNTZA ETA MATERIALAK

➤ **Formakuntza**

Aurten, prestakuntzaz arduratzen den zerbitzua aldatu da. Hauekin lanean hasi garenetik aldaketa asko egon dira kurtsoen datetan eta ordutegietan, Partzuergoak bilera bat izango du haiekin hau berriz ez gertatzeko.

➤ **Materialak**

Haurreskolako web orrian dokumentu berri batzuk sartu dituzte, hala ere, momentuz ez dira behin-betikoak. Martxoaren erdirako sindikatuekin bilduko dira hau dena: agenda, egunerokoa, ebaluaketako fitxak, e.a aurkezteko eta ekarpenak jasotzeko.

Honetaz gain, STEE-EILASetik, Haurreskola batzuetan, material falta dagoela eta bestetan, soberan dutela sehaskak eta tamaina handiko beste materiala ikusita. Dirua eta lekua aurrezteko planteatu diegu biltegi propio bat izateko beharra. Partzuergoak pentsatuko duela esan digu.

HEZITZAILEEN FUNTZIOAK

Bilboko Haurreskoletan katerina desagertu ostean, langile batzuk hartu behar izan dute haien gain, guk ez ditugun zeregin batzuk egin behar, jantokiaren eta plateren garbiketa, hain zuzen ere, eta sortu den iskanbilagatik, Udaletik pertsona bat jarri dute lan hau egiteko. STEE-EILASetik beti pentsatu dugu erabaki hau zabaldu beharko zela haurreskola guztietara.

Partzuergoa ados dago honekin, argi duelako hau gure lana ez dela, horregatik jantokia baldin badugu geroago erabili behar dugun espazio batean, Jarraipen Batzorderen bidez, Udalari, eguerdian, pertsona bat jartzea eskatu behar diogu eta ez badugu lortzen, Partzuergoari jakinarazi behar diogu bera presioa egin ahal izateko.

INTEGRAZIOEI BURUZKO INFORMAZIOA

➤ **Gasteizko eskolak**

Orain dela gutxi, Gasteizko Udal Haur Eskolak Partzuergoan sartuko zirela jakin izan genuen.

Partzuergoak jakinarazten digu sarrera hau progresiboki egingo dela eta aurten, bost haurreskola sartuko direla. Partzuergoaren hitzetan, orain arte eman diren beste integrazio guztien baldintza berberekin egingo da, baina hori ez da egia izango Gasteizko Udal Haur Eskola hauek ez dira bertan daukaten langileriarekin batera sartuko baizik eta hutsik, hau da, bakarrik eraikuntzak hartuko dira.

STEE-EILASetik alde batetik, pentsatzen dugu 0-3 ziklo osoa batera eta Hezkuntzaren barruan egon beharko zela eta beste aldetik langile hauek, orain dauzkaten baldintza berberekin sartu beharko ziren baita haien eskolekin batera.

ARABA: Fuente de los Patos 2-3.C	01001 Gasteiz	☎ 945 14 11 04	☎ 945 14 43 02	araba@stee-eilas.org
BIZKAIA: Nikolas Alkorta 3 (Zabalburu)	48003 Bilbo	☎ 944 10 02 98	☎ 944 10 13 60	bizkaia@stee-eilas.org
GIPUZKOA: Baso-txiki 30-34 (atzealdea)	20015 Donostia	☎ 943 46 60 00	☎ 943 45 36 27	gipuzkoa@stee-eilas.org
NAFARROA: Descalzos 72 (lonja)	31001 Iruñea	☎ 948 21 23 55	☎ 948 27 00 48	nafarroa@stee-eilas.org